

**ERABAKIA, 2024ko APIRILAREN 5ekoa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ERREKTOREORDEARENA, IKASKETA HELBURUAK DITUEN SICUE MUGIKORTASUN PROGRAMA NAZIONALAREN 2024/2025 IKASTURTERAKO DEIALDIAREN BARRUKO PLAZEN BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA ARGITARATZEA AGINTZEN DUENA.**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen errektoreordearen ebazpenaren bidez, ikasketa helburuak dituen SICUE mugikortasun programa nazionalaren 2024/2025 ikasturterako deialdia argitaratu zen 2024ko urtarrilaren 25ean.

Deialdi hartan, eskaerak aurkezteko epea ireki zen, 2024ko martxoaren 4ra arte.

Epea amaitzean, deialdian aurreikusitako esleipenak egin ziren, deialdian bertan jasotako hautaketa irizpideei jarraituta. Hala, esleipendunen behin behineko zerrendak egin dira, eta ebazpen honi atxikita aurkezten dira.

Azaldutakoarekin bat etorritz,

**HONAKOA EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.** – Parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleei deialdiko plazak **esleitzea**, argitaratutako esleipen irizpideen arabera. Esleipenak I. eranskinean agertzen dira: Baldintzak onartutako eskaeren zerrenda.

**BIGARRENA.** – Plazarik lortu ez duten, baina parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten parte hartzaileen zerrenda bat **ezartzea**, merituen araberako ordena zehatzean. Esleipendunen batek plaza utziz gero, zerrendako kideek eskura dezakete libratutako plaza. Parte hartzaile horiek II. eranskinean daude jasota: Plazarik gabeko eskaeren zerrenda.

**HIRUGARRENA.** – Deialdian agertzen diren baldintzak edo ikastegiak parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleak **kanpoan uztea**. III. eta IV. eranskinetan agertzen dira kanpoan geratu diren pertsonen zerrendak. III. eranskinean jasota daude deialdiaren baldintza orokorrak ez betetzeagatik kanpoan utzitakoak (III. eranskina: Araudiagatik baztertutako eskaeren zerrenda), eta IV. eranskinean agertzen dira ikastegiak baldintzak ez betetzeagatik baztertutakoak (IV. eranskina: Ikastegiko koordinatzaileak baztertutako eskaeren zerrenda).

**LAUGARRENA.** - Aurrez aipatutako ukapenen arrazoi zehatzak taula baten bidez argitaratzea. Argitalpen hori V. eranskinean agertzen da: Kanpoan uzteko arrazoiak.

**BOSGARRENA.** – Ebazpen hau 2024ko apirilaren 5ean argitaratuko da. Une horretatik aurrera, HAMAR (10) eguneko epea irekiko da ikasleek alegazioak jartzeko, esaterako, kasu hauetan:

- a) Aurkeztutako dokumentuak interpretatzeko orduan edo espediente akademikoa baloratzeko orduan akatsen bat gertatu bada.

- b) Ebazpenerako ezinbesteko balioa duten dokumentu berriak agertzen edo aurkezten badira.
- c) Ebazpenean baliozkotasun zalantzarrikoko dokumentuek eragina izan badute.
- d) Behar bezala arrazoitutako beste zirkunstantzia batzuk.

Alegazioak Fakultateko koordinatzailearen bitartekaritzarekin aurkeztu daitezke, edo idatzi baten bidez. Idatziaren hartzaileak “SICUE programa-Alegazioak” izan behar du, eta ahal bada UPV/EHUko erregistro elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>) bidez aurkeztu behar da, eskariaren “Hartzailea” atalean honakoa aukeratuta: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetako bat erabili behar da: a) Izenperen erabiltzaile ziurtagiri digitala; b) UPV/EHUko Unibertsitate Txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren (FNMT- CERES) ziurtagiria.

Halaber, honakoetan ere aurkez daiteke: a) Sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen; b) Aurrez aurre, UPV/EHUren erregistrorako laguntza bulegoetan edo sektore publikoko beste edozein erakunderen bulegoetan, horretarako jarritako funtzionario publikoaren bidez; c) Correoseko bulegoetan (gutun ziurtatuta, lehenengo orrian Correoseko bulegoaren zigiluarekin); eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Epe hori amaitzen denean, behin betiko ebazpena argitaratuko da.

#### **SEIGARRENA. - AURKARATZEKO MODUAK**

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen bide administratiboari. Gorako errekurtsua aurkez daiteke ebazpenaren kontra, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboaren (COORD/EISBA) aurrean. Eta egokitzat jotzen den beste bideren bat ere erabil daiteke.

Gorako errekurtsua aurkezten den unetik 3 hilabete pasata ebazpenik jakinarazi ezean, ezetsi egin dela ulertuko da, isiltasun administratiboa dela eta. Une horretan administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Bilboko Administrazio Auzietarako Epaitegian.

Leioan, 2024ko martxoaren 27an.

**Sin./Fdo. M. Juncal Gutiérrez Mangado**  
EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO  
ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE EUSKERA, CULTURA E INTERNACIONALIZACIÓN  
**ERANSKINAK**